OSASUN PARADIGMA BERRI BATEN ALDEKO HERRI BORROKAREN MANIFESTUA

Duela 6 urte Covid19aren inguruan sortutako eszenatoki pandemikoa, besteak beste, osasunaren pribatizazio-prozesu guztiak bizkortzeko eta osasuna merkantilizatzeko estrategia global bat finkatzeko erabili da, zeina azken hamarkadan gure herrian jada bidea egiten ari zen. Txertoak, antsiolitikoak (Espainiar Estatua Europako lehen kontsumitzailea da jada), bizitzaren medikalizazioa (EHn 15 urtetik gorako biztanleriaren % 64k diagnostikatuta du medikazioa behar duen gaixotasun kronikoren bat), gazteen osasun mentalaren okertze kezkagarria, froga diagnostikoen gehiegikeria, beharrezkoak ez diren ebakuntzak eta indarkeria obstetrikoaren ezin konta ahala kasu. Hau da, azken 6 urteotan biztanleriaren osasunaren narriadura globala gertatu da (Espainiako Bankuak 2023an, hain zuzen, ohartarazi zuen egoera horretaz, lan-produktibitatearen etorkizuneko jaitsieragatik kezkatuta).

Energiaren, komunikazioaren edo hezkuntzaren esparruetan gertatu den bezala, osasunaren arloan ere SARE KOOPERATIBO bat beharrezkoa dela iruditzen zaigu, ideologia kapitalistatik kanpo, elkartasunean, zintzotasunean eta borroka komunitarioan oinarritua. Gure ustez, proiektu hori eratzeko, prozesu parte-hartzaile bat eman beharko litzateke, non hiru urrats aurreikusten ditugun:

- 1) Oinarri Teorikoak: osasun-paradigma berri bat ezartzea (zer ulertzen dugun osasun gisa, nola irudikatzen dugun osasun-arreta eta nola bultzatuko genukeen etekinak eta merkatuko interesak kanpoan utziko dituen osasun-sistema bat).

- 2) Herri-hedapena: eztabaidatzeko, eraikitzeko eta erabakiak hartzeko herri-prozesua, non parte-hartzaileen kezkak, nahiak eta ezagutzak partekatuko genituzkeen osasun-hezkuntza berri baten alde.

- 3) Sare Kooperatiboa Sortzea: oinarri teorikoak, helburuak eta jarduteko moduak finkatu ondoren, ohiko neurri legal, antolatzaile eta ekonomikoak gauzatuz.

Argi daukagu zer EZ dugun nahi: ez dugu osasun-zerbitzurik nahi (ez publikorik ez pribaturik), non farmazeutikoek (BIG FARMA), mutuek eta aseguru-etxeek osasun-sistema ustel eta merkantilista bat kontrolatuko duten. Sistema horretan, jaiotzatik heriotzara arte, bezero gisa hartzen gaituzte, eta osasun-sistemaren eremu guztiak (politiken diseinua,

prestakuntza eta ikerketa) arreta medikoko forma jakin batera (farmako-zentrista) zuzenduta eta kontrolatuta daude, osasuna eta gaixotasuna ulertzeko beste inongo moduri zirrikiturik utzi gabe.

Edonola ere, aipatzen dugun osasun-sare kooperatiboko parte-hartzeak irekia izan beharko luke haren oinarrizko balioak partekatzen dituztenentzat; bai Osakidetzan edo Osasunbidean lan egiten dutenentzat, bai osasungintza pribatuan lan egiten dutenentzat. Horrela, mediku, psikologo, erizain, fisioterapeuta edo beste osasun-langile batzuengana jo behar dugunean, sare kooperatiboko langileen erreferentzia bat ere izan ahal izango dugu, lagunduko diguna eta zeinarekin afinitatea izango dugun.

Laburbilduz, **herri-erreferentzia berri bat behar dugu osasunaren arloan, kontrabotere terminoetan ulertuta, egungo paradigma kapitalistaren aurrean osasun-paradigma berri bat indartuko duena eta aktibista-sare komunitario bat sortzeko gaitasuna izango duena**. Aurrean dugun distopiatik urrundu eta nahi dugun utopiarantz jo behar dugu.

